

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

2025eko maiatzaren 5eko jakinarazpenaren iragarkia, udalaren biztanle erroldan behar ez bezala inskribatzeagatik ofizioz baja emateko espedientea hasteko prozeduran

Alkatearen 2025eko apirilaren 15eko 2025/66 Dekretuaren bitartez, erabaki zen espedientea hastea behar ez bezalako inskripzioagatik baja emateko udalaren biztanle erroldan 48677823W NAN zenbakiarekin erroldatuta dagoen pertsonari, udalerrian benetan bizi izan gabe erroldatu baitzen (Toki Erakundearen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamendua, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsia, 54. artikulua).

Bizilekuan banakako jakinarazpena egiten saiatuta ezin gauzatu izan denez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera, ediktu baten bidez egiten da, zeinaren bitartez jakinarazten baita 15 eguneko epea duela udalerri honetako biztanleen erroldan baja ematearekin ados dagoen ala ez jakinarazteko. Ados ez egotekotan, udalerri honetan bizi dela egiaztatzeko egokitzen jotzen dituen alegazioak, agiriak eta justifikazioak aurkez ditzake.

Aurreikusitako epea igarota, eta erroldatze kontseiluak baieztatu txostena eman ondoren, baja emango zaio erroldan eta hauteskunde erroldan.

Erdoña, 2025eko maiatzaren 5a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO